

## HAUR-ESKUBIDEEN DEKLARAZIOA

**Itzulpena :**



- 1** Haurrak deklarazio honetan aipatu eskubide guzietaz gozatu behar du. Eskubide hauek haur guzientzat balio behar dute, salbuespenik egin gabe, eta arraza, larru-kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko, nazio-jatorri, jatorri sozial, dirutza, sortze edo beste edozein egoeragatiko bereizketa edo diskriminaziorik egin gabe, azken hau haurrari edo bere familiari zuzendua izan dadin.
  
- 2** Baldintza sano eta normaletan handi dadin, fisiko, intelektual, moral, espiritual eta sozial mailan, askatasun eta duintasun osoz, babespen berezi bat, bai eta ahalbide nahiz erraztasunak eskaini behar zaizkio haurrari, legez edo beste edozein medioz. Honelako xedea defendatzen duten legeak onartzerakoan, haurraren goi mailako interesa irizpide nagusitzat hartu behar da.
  
- 3** Sortzen denetik, haurrak izen eta nazionalitate bat ukaiteko eskubidea du.
  
- 4** Haurrak gizarte-segurantza izan behar du. Era sano batez handitu eta garatzeko aukera izan behar du ; bai haurrari, bai bere amari, laguntza eta babespen berezi bat, bai eta ere sortu aitzineko eta ondoko arta egokiak segurtatu behar zaizkie. Haurrak janaria, bizitokia, aisialdiak eta arta egokiak ukaiteko eskubidea du.
  
- 5** Gorputzez, buruz edo sozialki desabantailatua den haurrak bere egoerari dagozkion tratamendua, heziketa eta arta bereziak hartu behar ditu.
  
- 6** Garapen harmoniatsu bat ukaiteko, haurrak maitasuna eta ulertzea behar ditu. Bere gurasoen babespen eta ardurapean ahal bezainbat eta, gisa guziz, samurtasun eta segurtasun moral eta materialeko giroan handitu behar du ; haur ttipi-ttipia ez da inola ere bere amarengandik bereizi behar, baldintza apartekoak izan ezik.
  
- 7** Gizarteak eta podere publikoek familiarik gabeko edo bizi-ahalmen guttiegi daukaten haurrak bereziki artatu behar dituzte. Gomendatua da familia ugariak laguntzak har ditzaten Estadutik edo beste edozein iturritik, haurrak zaindu ahal izateko.
  
- 8** Haurrak dohainikako eta derrigorrezko heziketa hartzeko eskubidea du, bederen oinarrizko mailetan. Kultura orokor bat ematen dion heziketa hartu behar du, aukera

berdintasuneko baldintzetan bere gaitasunak, aburu pertsonala eta ardura moral nahiz sozialen sena garatu eta gizarteko kide baliagarri bat izateko ahala emanen diona. Haurraren goimailako interesak gidatu behar ditu haur- heziketaren eta norabideratzearen ardura dutenak ; ardura hau oroz gaineratik gurasoen esku da.

**9** Haurrak jolastu eta dibertitzeko aukera guziak izan behar ditu, heziketaren helburuetara bideraturik : gizarteak eta podere publikoek indar egin behar dute eskubide honen gozamenari lehentasuna emateko.

**10** Edozein baldintzatan, haurrak babespena eta laguntza hartzen dituzten lehenetarik bat izan behar du.

**11** Haurra ezaxolakeria, krudelkeria eta esplotazio era guzietatik babestu behar da. Ez du inolako salerosketarik jasan behar. Ez du lan egin behar guttieneko adin egoki batera heldu aurretik : ez da inolaz ere bere osasunari edo heziketari kalte egin liezaiokeen edo bere garapen fisiko, buruzko edo morala traba lezakeen lan bat hartzera bortxatua edo baimendua izan behar.

**12** Haurra arraza, erlijio edo edozein diskriminazio motatara bultzatzen duten praktiketarik babestu behar da. Ulertze, tolerantzia, herrien arteko adiskidetasun, bake eta senidetasun unibertsal izpirituan hezi behar da, bere indarrak eta gaitasunak beste gizakien zerbitzuko emateko aukera duela sentiaraziz .

**1959ko azaroaren 20an Nazio Batuen Biltzar Nagusiak onartu Deklarazioa.**